

ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA

KANTUA

2010eko otsailaren 16a

2010eko otsailaren 16an Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Kantu espezialitatean. Bertan esku hartuko dute, izena eman nahi dutenez gain, espezialitateko bi irakasleek, Maite Arruabarrena eta Ana María Sánchez-ek, Pianojole Laguntzailearekin Errepertorio irakasle diren Esther Andueza eta Itziar Barredo-k, eta Musikeneko kantu ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gainditu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**.

Zein da lan-egitasmoa?

12.00 Ateak Zabaltzeko Jardunaldiaren aurkezpena. Sail Zuzendariak, Itziar Barredok, harrera egingo dizue parte-hartzaile guztiei Musikeneko 105. gelan. Bertan informazio emango dizue ikasketa-planari buruz, eta zuen galderei erantzungo die. Ondoren, 14.00ak bitartean, Ana M^a Sánchez eta Itziar Barredok hala nahi duten ikasleak entzungo dituzte. Bitartean Maite Arruabarrena eta Esther Anudezak eskola irekiak emango dizkiete beraien ikasleei.

14:00-15:00 Musikeneko kafetegian bazkaria nahi duen ororentzat.

15:00-17:00 Maite Arruabarrena eta Esther Anduezak hala nahi duten ikasleak entzungo dituzte. Bitartean Ana M^a Sánchez eta Itziar Barredok eskola irekiak emango dizkiete beraien ikasleei.

Non dago Musikene?

MUSIKENE
Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia
Miramar Jauregia
Mirakontxa, 48
20007 Donostia-San Sebastián
Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778
Faxa: 00 34 943 316916
E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=wl&q=palacio%20miramar>

Informazio gehiago behar dut...

Egin kontaktua zuzenean gurekin eta zure zalantzak argituko ditugu: ibarredo@musikene.net